


Nafar**k**aria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko uztailak 9 / III. urtea / 83. zenbakia

Itoitzera kondenatuak



Hilabete pasatxo daramate lanean, hor ondoan, baina oraindik ez dira ohitu. Zortzi urteko borrokaren ondotik, askok oraindik ez dute sinesten urtegia egingo denik, baina pistak eta zinpeko goardiak pare-parean dituzte, lanean etengabe. Bi familia bizi dira Itoitzen, bost bat Artozkin, eta gehixeago Nagoren. Estatu espainoleko ekologistek «urtegirik kaltegarriena» izendatu dutenak denak urperatu nahi ditu, eta batzuek tinko dirauten bitartean, besteak, «urtegia egin, egingo dela eta», herri berria eskatzen hasiak dira. Denek gal litzakete etxeak eta lurrak, eta batzuek lana etaazienda. Itoitzera kondenatuak baitaude.



Artozkiko eliza salbatu nahi du Diputazioak, baina etxeak nahiago dituzte bertakoek. Hemen ondoan, Itoizko Catalina Etxamendi eta Mateo Gorraitz.
ALBERTO BARANDIARAN



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Ana Ripa. Txaro Oses eta Mari Luri artisten erakusketa zabalik dago Lizarrako Banco Atlanticoaren erakusketa aretoan. Al-budi Talde Kulturalako kideak dira hirurak, eta bere pinturak ikusteko ordutegia hau da: 19.00etatik 21.00etara lan egunetan, eta 12.00etatik 14.00etara jai egunetan. Uztailaren 15a arte egonen da zabalik.

Alberto Arrancibia eskultorearen lanak ikusgai daude uda osoan Iruñeko Caballo Blanco Mesonean. Euskal mitologiari buruzko eskultura interesgarri batzuek osatzen dute erakusketa hau, eta edozein ordutan ikus daiteke.

'Garaikideko Pintura' izeneko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoa uztailaren 29a arte. Bertan, hamahiru artista ezberdinen lanak ikus daitezke, 1983 eta 1992 urteak bitartean egindakoak. Amaitu eta gero, Gares, Tafalla eta Tuterako kultur etxetara eramango dute erakusketa hau.

Fernando Callejaren lanen erakusketa zabalik dago Lizarrako Kultur Etxean, Almudi talde kulturalak antolatuta. Kuadroak uztailaren 18a arte egonen dira ikusgai, egunero 19.00etatik 21.00etarako ordutegian.

Otagintzari buruzko erakusketa zabalduko da Lekunberin bihar larunbata, hilak 10, eta ordutegi honekin: lanegunetan, 19.00etatik 21.00etara, eta jai-egunetan 11.30etatik 13.30etara.

ZINEMA



'La Sirenita' izeneko pelikula eskainiko du Baztango udalak Elizondon, 'Zinema kalean' zikloaren barruan. Zine emanaldi hau datorren astelehenean, uztailak 12, izango da, Merkatuko Enparantzan, gaueko 10.30etan. Sarrera dohainik izango da, eta astero filme bat eskainiko dute.

'Heroe por accidente' pelikula botako dute Meanon bihar larunbata, uztailak 10, Nafarroako Gobernuak antolatu duen udako programazioaren barruan. Zine emanaldia gaueko 22.00etan hasiko da. Era berean, eta igandean, pelikula bera eskainiko dute Irañetan, programazio berdina- ren barruan, eta ordu berean.

ANTZERKIA




Bajo la arena antzerki taldeak obra bat eskainiko du asteburu honetan Irañeta eta Meano herrietan. Nafarroako Gobernuak udarako urtero antolatzen duen programazioaren barruan.

Orbaibarra inguruan

Orbaibarra aukeratu dugu asteburu honetarako. Sanferminetarik ihesi, edo, besterik gabe, lasai egoteko goiz eder bat pasatzeko aukera burutik pasa baldin bazaizue. Iruñetik gertu, inguru ederra da Orbaibarra: ez oso menditsua, ez sobera laua, pasatzeko arrunt aproposa.

Gaurkoa Uzkitatik aterako da, Leotzen bildurik dauden herrietako batetik, hain zuzen ere. Bertan inon baino nabariagoa da Orbaibarra osoan izan den populazioaren jeitsiera. Sei familietatik batera murriztu zen duela hamar urte, eta orduan oraindik ez zeukaten ezta ura ere. Bideak Tafallatik Iruñerriera doan ardi-bideta zapalduko du, Ezprogi- rekin mugan. Inguru guztia landatuta izan da noiz edo noiz. Egun, baina, nagusiak dira belardiak eta belazeak, ardiendako aprobetxatzen direnak. Egun soilik garia eta garagarra lantzen da, beste hainbeste tokitan bezala, ohizko paisaia bihurtu baita Nafarroako toki frankotan.

BIZKAIAN BASURDEAK UGARI Ibilbidea Uzkitatik aterako da, esan bezala, eta hortik errepideari jarraitu behar zaio, Subitzako gainara haldu arte. Hortik jarraitzen du bidea Bizkaiaruntz, eta ezkerretik har-



tuz gero ardi-bidea hartuko genukeen. Bizkaia izeneko zonaldea zenbait herri osatzen dute: Sabaitza, Gardalain, Usunbeltz, Getadar, Julio, Arteta, Loia, Moriones, Ezprogi eta Aiesa, hain zuzen ere. Horietariko soilik azken hiruetan bizi da oraindik jendea. Gainontzeko guztia Diputazioaren jabegoa da, eta bertan pinudien birlandaketa franko egin dira. Bertan —ez alferrik baita Orbaibarra ehiztariendako paraisua—, ugariak dira basurdeak.

Sabaitzako gaina utzi ondo-

ren, eskuineruntz hartu behar dugu bidea, eta Bizkaiaruntz jeisten den amildegitik goiti, Zirizako bordak ikusten ditugularik, Getadar eta Juliora daraman bidea aurkituko dugu. Hori ere ezkeraldera utzi, eta eskuineruntz hartuko dugu. Hortik amentian sartuko gara. Baso hau Uzkitari dagokio, eta betidanik aprobetxatu da egurrarendako. Gaur egun, ez da hanin ekoiztua izaten, eta erreperatzen ari da. BertaN ugaria da, halaber, ezpe- la. Hortik aurrera, Uzkitra berri- ro.

ASTEKO PERTSONAIK



Julian Retegi
Pilotaria



Marine Pueio
Zinegotzia



Fermin San Martin
Kirolaria

Azkeneko bi urte hauetan bigarrena geratu bada ere, aurtun Julian Retegi Eratsungoak eskuratu du Eskuz Banakako Txapelketaren lehen postua, bere hamaikagarren txapela. Retegik kantxan erakutsi zuen oraindik bera dela 'maisua' esku pilotan, 36 urte izan arren. Partidu bikaina izan zen igandeko finala. Hasi eta berehala hamar tantuko aldea hartu zuen txapeladunak, apostuak bere alde jarriz. Baina Galartzak ez zuen etsi, eta hamar tantu segidan egin zituen, berdinketa lortu arte. Azkeneko tantuetan urduritasuna nabaria izan zen. Bi pilotariak markagailua bere alde jartzeko gai ziren, eta nekea ere kontuan hartzekoa zen. Amaieran, hoberenak irabazi zuen, pelikula gehienetan bezala, eta Julian Retegik gutxiak uste zutena lortu zuen.

Aurtengo txupinazoa botatzea Herri Batasunari tokatzen zitzaion, eta Abertzaleek Marine Pueio zigotzia aukeratu zuten suziria pizteko. Urduri zegoela aitortu zuen Pueio Faltzeseko emakumeak, «pentsatzen dudanean nola egonen den Udaletxe plaza, nerbiostu egiten naiz», zioen. Egurdiko 12.00ak zirenean, udaletxeko balkoira atera eta «Iruindarrak, gora San Fermin» oihukatu zuen, txupinazoa bota aurretik, eta ondoren zoramena hasi zen Iruñean. Zapi gorriak eta txanpaia uneko protagonista bihurtu ziren, jai ospetsu hauei hasiera emanez. Ohizkoa denez, Herri Batasunako zinegotziek ikurriña bat atera zuten udaletxeko balkoira, baina aurtengoan ez ziren istilurik egon, iaz bezala.

Mepamsa San Antonio eskubaloiko jokalaria badaki zer den zeben baten adarra gorpu barrenean edukitzea, Iruñeko Sanferminetako lehen entzierroan Cebada Gagoko zeben batek harrapatu baitzuen. Arriskutsua eta luze xamarra izan zen entzierro hau, zebenak lurrera askotan erori baitziren, eta atzean geratu zirelako ere. Lau minutu baino gehiago iraun zuen entzierroak, eta amaitzeaz zegoela, zeben plazara sartu aurretik, zeben beltz batek Fermin San Martin Mepamsa San Antonioko eskubaloiko jokalaria harrapatu eta larriki zauritu zuen. Hogei zentimetroko zauria egin zion ezkerreko belauna eta iztarrean. Harrapatu eta berehala eramane zuten ospitalera, baita kirolfanoan sartu ere.

AHAZTU GABE!

BERTSO EKITALDI paregabea izanen da gaur ostirala, uztailak 9, Lesakako pilotalekuan, festak direla eta. Andoni Egaña, Imanol Lazkano, Jon Enbeita, Jesus Mari Irazu, Estitxu Arozena eta Amaia Teiletxea ariko dira kantari, eta Manolo Arozenak egingo du gajartzaile lana. Talde polita eta bitxia, Nafarroako gazteek gutxitan izaten baitute bertsolari handiekin biltzeko parada. Manoloren lana ere arreta handiz jarraituko da.

Eta gaur ere, Iruñean, beste bertso saioa izanen da, Takoneran. Bertan Juan Mari Narbaitza, Imanol Lazkano, Igor Elortza, Estitxu Arozena eta Angel Larrañaga izanen dira, eta Manu Gomezek burutuko du gajartzaile lana. Ohizkoak izaten dira bi bertso saio hauek Nafarroan, eta behingoz bederen, Lesaka da nagusi Sanferminetan. Bakoitzari berea, eta bertso kontutan, Lesaka da txapeldun. Hala ere, oso bertsozale izanez gero, badago bi bertso saioak aditzea ere, Iruñeko eguerdian izanen baita. Bertsolariak egingen dute, orduan...

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

SANFERMINAK direla eta, eskeintza berezia emango die bere entzulegoari Euskalerrria Irratiak, zuzen zuzenean ariko baita bihar, 10etatik aurrera. Kaleko giroa lehendabiziz, gero Txakoneran izanen den bertso saioa emanen du zuzenean, eta Irulegi Irratikoekin ere zuzen zuzenean ariko da Iruñerriko irrati euskalduna.



HERRIZ BERRI



Baztan

Udalak kanpina nahi du

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Baztango Udalak lehen mailako kanpina eraikitze asmoa aurkeztu du aste honetan Elizondon, azpiegitura turistiko indartu eta bultzatzeko egiten ari den ahalegin bereziaren barruan. Kanpin honek 400 toki izanen ditu, eta Merkatuzelaiaren egonera, Elizondon bertan, Udalaren diren lurretan. Asmoa posible egiteko frantziskotarren ikastetxe zaharra erabiliko da Udalaren lurren truke, horren gainean erosteko aukera baitauka. Udal ordezkariak prentsaurrekoan azaldu zuten, igeritokiak, teniserako pistak, golf eta beste zerbitzuak eskeiniko ditu kanpinak.

Proiektua aurrera eramateko, etxe agentziekin hitzarmena egiteko, lehiaketarako deia egingen du Udalak. Hitzarmena lortuz gero, enpresak eraikiko lituzke kanpina eta zerbitzu guztiak, eta horren truke frantziskotarren eraikina erosteko opzioa emango lioke Udalak, bertan etxebizitzak eraikitze eta bera geldituko litzateke kanpinarekin. Udaleko ordezkariak azaldu zuten, operazioa «garbia, interesgarria eta arriskurik gabekoa» izanen



Kanpinak 400 toki inguru izanen lituzke.

litzateke, eta horren bidez zonaldean premia handiko azpiegitura bat eskuratuko litzateke. «Ezin dugu esan turismoaren alde gaudela» azaldu zuen Patxi Oizartza alkateak, «eta gero behar diren azpiegitura eta baliabideak ez garatu». Bere ustetan, zonaldera industriak etorri gero, Bidasoa aldera joanen lirateke, bertan da-

goen azpiegitura dela eta. «Horregatik, nekazaritza, abeltzantza eta turismoan zentratu behar ditugu gure ahaleginak».

Pedro Perez Uritx zinegotzia eta Bertizko Partzuergo turistikoaren presidentea denak, bere adetik, kanpinaren garrantzia azpimarratu zuten. «Udalak orain arte ezezaguna den azpiegitura

bat eskuratuko luke, eta horrela erantzuna emanen genioke gero eta ugariagoa den turismo mota bati».

Halaber, kanpinak asteburu osorako turismo iraunkorra eskeiniko lukeela azaldu zuen zinegotziak, proiektuaren garapeneren bidez sortuko liratekeen etxebizitzekin.



AEZKOAko ibarra Orreagara prozesioan joan zen beste urtebetez, ohizkoa izaten ohi den ikusgarritasunarekin. Joan den igandean, goizeko hamarretan aldera, Urrobiko gurutzan bildu ziren Aezkoa osoko 25 erromesak, eta hortik erromesaren laguntzaz egin zituzten Orreagarainoko sei kilometroak. Ohizko erara, urtetan kutxetan gordetako soinekoekin, gurutzak lepoan, eta batzuk ankutsik, ordu t'erdian beranduago heldu ziren kolegiatara. Jose Antonio Perez apaiz aetza-aren ustetan, baina, ez da oso indartsua gaur egun bertakoen fede-eta, eta Artzeko prozesioa azpimarragarriagoa zela azaldu zuen.

TUTERAko festak hasteko ere gutxi falta da, Nafarroa osoan Sanferminak besterik ez daudela iruditu arren. Udalak aste honetan bertan aurkeztu du egitarau ofiziala, 27 milioi pezetako aurrekontuarekin. Berrikuntzetan, hirugarren zezenketa, eta udalaren haserrearen zenbait talde folkloriko ekartzeko Bianako Printzea erakundeak emandako ezetzagatik. Izan ere, udalak egunotan Nafarroan ariko diren Ukraina, Eslobenia eta Greziako taldeek Tuterako festetan parte har zezaten eskatu zion erakunde kulturalari, baina honek ezetza eman zion, festak zirela argudiatuz.

FESTAZ FESTA

LESAKA

Uztailak 9: haurren eguna

9.30etan: Haur danborrada, Lesakako akordeolari taldearekin.

12.30etan: Betizuak, Plaza Zaharrean.

Arratsalde: Plaza Zaharrean, 'Pista libre & Gunfly s' haurren ikuskizunak: karts, puzgarriak, zezen mekanikoa, rollen pista, 'Lindux Amapolux' haur animazioarako taldea.

18.00etan: Frontoian, eskuzko pilota partiduak.

23.00etan: Udal pilotalekuan, bertso jaialdia, Gure Arrano Elkarteak antolatua.

24.00etan: Musika goizalderarte, Plaza Zaharrean, Minxoriak taldearekin.

Uztailak 10: ezkonduen eguna

12.30etan: Betizuak, Plaza Zaharrean.

15.30etan: 'XLVII Txakain Txirindula Saria', 1. eta 2. mailako afizionatuen Euskaldun Lehiaketarako puntuagarri den laisterketa, Basurde Elkarteak antolatua, Lesakako Udalaren babesarekin. Lesaka-Lesaka 115 kilometroko ibilbidea.

18.30etan: Frontoian, pilota partiduak, Arkupe Elkarteak anto-



latuak.

Gauetz: Musika, Plaza Zaharrean, 'Izadi' taldearekin. Eta bukaeran, Jai-Hilak.

Izar txaranga eguneroko bezala.

Uztailak 11:

20.00etatik 23.00 arte: Musika, Plaza Zaharrean, Arkaitz taldearekin.

AZPILKUETA

Uztailak 9, ostirala:

9.00etan: gosaria, kanpotik zikiro jate prestatzera etorriko diren erretzailentzat.

14.00etan: zikiro jate, plazan. Bertan ere bertsolariak ariko dira: Joxe Lizaso eta Joxe Agirre.

20.00etan, dantzaldia, Joxe An-

gelekin.

22.00etan. Eguerdian egindako zikiro-jatearen hondarren afaria, zerbait sobratzen bada, bederen.

24.00etatik 4.30etara: dantzaldia berriro, Joxe Angelekin.

Uztailak 10, larunbata:

10.00etan: argi soinuak.

11.30etan: haurrendako jostaketak, egun hau baita haurren eguna, hain zuzen ere.

13.30etan: Herri bazkaria, plazan, azpilkuetar guztiendako.

17.30etan: txokolatada plazan, herriko haurrendako.

20.00etatik 22.30etara: dantzaldia, 'Anker' taldearekin.

0.30etatik, 4.30etara: dantzaldia, berriro 'Anker' taldearekin.

Goizeko 6etan: xinger jatea, gaua aguantatu dutenendako.

Uztailak 11, igandea:

10.00etan: argi soinuak.

11.30etan: Meza Nagusia.

13.00etan: dantzaldia, 'Anker' taldearekin.

17.00etan: Pilota finala.

18.30etan: merendola, herriko plazan.

20.00etatik 22.30etara: dantzaldia, 'Anker' taldearekin.

0.30etan: dantzaldia 'Anker' taldearekin.

4.30etan: 'Pobre de Mi'



BUÑUEL eta Kaskanten hiru urte luzez ezkutatu ziren 'errepidearen banda' izeneko gaizkileen taldearen partaide bat zigortu berri du Valladolideko Auzitegi Probintzialak. Zigorra 30 urtetakoa izan da. Gogoratuko denez, hiru urte haietan bortxaketa, lapurketa eta baita ere hilketa franko izan ziren Espainiako errepide askotan. Zigorra Valladolideko herrixka batean izaniko hilketarengatik jarri du auzitegiak. Orduan Jourdan Thierry kamioi gidari frantziarraren kamioan sartu zen Manuel Flores, kristalak hautsi ondoren. Kamioilaria esnatu eta labana baten bidez saiatu zen defenditzen, baina erasotzaileek tirokatu egin zuten. Gaizkile talde honen ohizko jardueraren zen mila kilometro inguru egin, lapurketa, eta gero etxera itzuli.

OLLOKIko baserri batean 50.000 dosi kokaina atzeman du polizia eta baita Manuel O.S. iruinshe mea ere. Honekin batera, ibilgailua, 800.000 pezetako eta kokainarekin aritzeko zenbait tresna atzeman zuen polizia.

Pare-parean dituzte lanak, baina ez dute itxaropena galdu. Itoitzen zortzi urteko borroka daramate urtegiaren kontra, eta «ura lepoan eduki arte» bertan egongo direla diote. Artozkin edo Nagoren, ordea, jende askok etsi egin du dagoeneko, eta herri berria edo ordain onak lortzea dute kezka.

«Ura lepoan izan arte»

ALBERTO BARANDIARAN / ITOITZ

Ez du euririk ari, baina haize bildua dabil Itoizko bidean. Agoitz parean. Longidako zeruak itsasoaren kolorea dauka, urdin-urdina, eta gorago, Aezkoa aldera, hodeiak eta lanbroak nagusitzen dira. Atzean utzi ditugu Uharte inguruko hirigintza berri-berriak, Nafarroako zentralizazio berriaren erakusgarria, eta Irati eta Urrobi ibaiek bat egiten dutenetik goiti malkar bihurtzen da lurra, zaila. Ibaiek markatzen duten zirrikituetatik sartzen da bidea, eta muinoak, mendixkak eta harkaitzak nagusitzen dira.

Longida ibarran gaude. Oraindik bizirik dirauten herrietan bizpahiru familia daude, gehienak jubilatutak, eta errepideaz bi aldeetan ikusten dira dorre, eliza eta etxe arrailduak, askotxo huntzez estaliak, besarkatuak. Rala, Gorritz, Ezkai, Osaren bakardadearen lagun bakar-rak dira enarak, beletak eta mitrotzak. Bihurgune batean, bapatean, Itoizko lautada ederra azaltzen da begien aurrean, eta erdian, herria. Atalai batetik, errepide ondoan, duela hilabetetik hona etorritako indusmakinak eta zinpeko goardiak.

«Gogoa akitzen zait hor egiten ari diren sarraskeria ikusten dudanean». Laura Lizarraga, bere gurasoak, aitona-amonak eta arrekoak bezala, Itoitzen jaio zen, eta Itoitzen hil nahi du. Bera da paraje lasai honetan oraindik bizi diren bi familietako baten burua. Eta beste etxean bezala, ez du hitz egin ere nahi urtegiarek, edo, hobe esanda, herririk gabeko balizko etorkizunaz. «Ura lepoan izan arte hemen egonen gara».

Itoitz —Muniain, Orbaitz, Artozki eta Nagore bezala—, Nafarroako Gobernuak aspaldian izendatu zuen 'proiekturik garrantzitsuenak' urperatuko du, gauzak asko aldatzen ez badira, behintzat, baina bertan ez dute oraindik itxaropena galdu. «Nire amonak» azaltzen du Catalina Etxamendi 65 urtekoak «entzun zuen jada urtegiarena, eta berak

errana: 'Egia izanen ahal da!'. Urte asko pasa dira, eta lanak orain hasi badira ere badugu itxaropena».

ITXAROPENAREN KONTRA LANEAN

Itxaropenaren kontra, baina, pare parean ari dira. Herriatik garbi asko ikusten dira pista erriak, lurren mugimenduak, eta zinpeko goardiak. Hasierako egunetan herrian aritu ziren, bueltaka, baina orain ez dira beren atalaatik mugitzen. Herrian, bitartean, enarak dira zalapartatsuenak, eta bi txakur, lotuta, zaunkaka ari dira. Deslai utzi dute, halabaina, Itoitz. Administrazioak aspaldian ahaztu zuen herria, eta bertan egindako guztia herriarrek egin dute, batzuen elkartasunarekin. Soilik bi hilarri dituen hilerriaren aurrean, eliza, herria menderatzen eta telatu konpondu berria. Erosteroko asmotan etorri ziren duela gutxi, baina azkar asko bidali zituzten bertatik. Ura eta argindarra ere beraiek pagatu behar izan zuten, eta telefonoa ekartzeko 1980a arte itxaron behar izan zuten. Eskakera ere egin dute herriko sarre-ran zoladura jar dezaten, baina ezerrez. Duela pare bat urte behitegi bat eraikitzeke dirulaguntza eskatu, eta ukatu egin zieten. «Itoitzen ez dute ezer egitea nahi». Hamahiru lagun bizi dira bertan, hoiatariko seik nekazari-tzan edo abeltzantzan dihardute.

«Lur txarra dela diote» azaltzen du Mateo Gorraitzek, «baina sei seme-alaba atera ditugu aurera lur horrekin. Beraz, hemen ez dute esaterik etorkizunik ez dagoela». Berari erreleboa hartu dio Fermin semeak, eta egun 80 behigorri dauzka Itoitzen. Urte ona izan da, Europako Elkarteko dirulaguntza polita eskuratu baitu. Hala ere —baserritarren errealismoa ote?— etorkizuna «oso latza» da, Ferminen irudiko. «Gogorra da lanean aritzea jakin gabe zenbat irauengo dugun hemen». Lehendabiziko egunetan, makinaren zarata ezin zuela jasan eta, alde egiten zuen, baina orain ohitu dela dio. «Arzoa da hemen oso gutxi ari garela lanean urtean zehar. Urtegiak hartu nahi dituen lur zati gehienak jublatu edo kanpoan bizi den jendearenak dira, bestela beste kukuak joko liguke».

Ezohizko mugimendua dago gaur herrian, festak baitira. Egitarautan, berbena bat. «Aurten oso lanpeturik ibili gara eta ez dugu ezer berezirik prestatzeko astirik izan», desenkusatzen dira.

Taula jartzen ahalegintzen dira lau gazte, eta paratuko diren bi barraketatik aterako den dirua urtegiaren kontrako koordinakundearentzat izango da.


«EZ DAGO IRTENBIDERIK»

Hori da, hain zuzen, herri kaltetuen artean dagoen desberdintasuna. Artozkin inork ez du dudan jartzen —koordinakundearen ustearen aurka— urtegia egin egingo dela, eta beste herri bat eskatu diote administrazioari. Garestiegia omen da baina, eta Iruñean ez dute interes handirik topatu. «Diputazioan beste herri bat zertarako nahi genuen esan ziguten, 'denak jubilatutak izanik'». Zenon Urrizalkik, porruak ureztatzen ari zela, Iruñetik heldu berri diren biloben bisita jaso du. «Hau ere nekazaria izanen da» dio baratzan sartu bezain laister atxurra hartzen saiatu den mutiko ezin bihurriagoaz. Baina haserretu egiten da oso lur eta etxe dotoreak uzteagatik eskeini dietenaz mintzatzean. «Idatziz ez digute ezer esan, eta horrela nahi dute gure lurak uztea?». Emazteari begiak lausotzen zaizkio alde egin behar izango ote duten galdetzen digunean. «Datorrenari begira egon behar dugu, ez dago irtenbiderik», Zenonek.

'Bereiztu, irabaziko duzu eta', diote estrategia kontutan adituek, eta hasieran ahaleginak nahiko bateratuta bazeuden ere, lurren jabeak diren ia erdiak gobernuren eskaintza, hau da, lurak sal-tzeko jarrirako prezioa, dagoeneko onartu egin duela zabaldu da. Nolanahi ere, informaziorik eza da nagusi herri guztietan. Artozkiko eliza harriz harri beste toki batera eraman behar dutela diote gobernuan, eta bertan ez dakite ezer ez. Itoizkoek beren lurak dagoeneko saldu dutela aditzen da inguruan, eta haiek «gezurra hutsa» dela azpimarratzen dute, haserre. Horrek bereiz-tu egin du, bereiztu ere, jendea.

«Nagorekoekin ez dugu tratu-rik», diote Itoitzen. «Gu urtegiaren kontra gaude, eta haiek alde

Lanak gainean ikusteak eta deus gabe gelditzeko beldurrak arazoaren konponketa beste nonbaitetik bifatzera bultzatu dute.



baldin badaude, ez dago zertaz hitz eginik. Haiek bere aldetik, eta gu guretik». Zortzi urte haue-tan Itoizko Koordinakundeak eraman du urtegiaren kontrako borrokaren pisua, eta oraindik herri gehienetan aldeko asko baldin baditu ere, lanak gainean ikusteak eta deus gabe gelditzeko beldurrak arazoaren konponketa beste bide batzuetatik bilatzera bultzatu dituzte batzuk.

«Koordinakundeak ezetz esaten dio gauza orori, eta urtegia ez dela egingo errepikatzen dute», azaldu du Zenonek. «Baina urtegia hemen dago, hor daude lanak, eta honek ez dauka bueltarik, egin, egingo dute eta. Beraz, urtegiari ezetz zertarako?». Herrian konponbide bat lortu behar delakoan daude, eta herri berri baten apostua egin dute. «Temoso jarraitzen badugu, ezer gabe geldituko baikara».

«Hori da hemengo lurretik bizi ez denaren jarrera», diote Itoitzen, eta arazoia dute. Galtzeko dena daukana, gogorrena. Eta Itoitzen gogor diraute. Nahiz eta, tarteka-marteka, etengabe lanean diharduten makinei begiratzen dieten.



Artozkiko eliza ederra salbatu nahi du Gobernuak harriz harri. Ezkerrean Itoizko Fermin Gorraitz, eta eskuinean, Artozkiko Zenon Zarraluki, bilobarekin. A.B.

A.B. / ARTOZKI

Bost familia bizi dira egun Artozkin, nahiz eta Iruñean aritzen den jende franko, gehienak herriko seme-alabak, asteburuetan hurbildu. Bost familia eta 11 etxe dotore, zuri-zuriak eta arrosaz beterik. Harritu egiten du Itoitz, Muniain, Lakabe, Orbaitz eta beste herriak ikusi ondoren —araildu eta tristeak— Usoko urtegitxotik goiti dagoen herri horren itxura ederrak. Elizak dena menderatzen du. Eta akaso horregatik, Artozkin herri berria nahi dute, urtegiaren azpitik geldituko litzatekeen —'geldituko den' herrian egin egingo den ustea baitago—, lurraz gainetik.

Horretarako batzordea osatu zuten laz herrian urtegiaren kontrako koordinakundearkin lur jabeen interesak defenditu ezin zituztelakoan. «Gu koordinakundearen barruan geunden» azaldu du Javier Begiristain batzordekoak, «baina konturatu ginen jabeekin ez zutela ezer egiteko asmorik. Haiek 'urtegiari ezetz' esan eta hortik kanpo ezer ez, beraz, herrian batzordea osatzea erabaki genuen».

Koordinakundetik kanpo aritzeak ez dakar, Begiristainen ustetan, koordinakundearen kontra aritzea, baizik eta jabeen interesak defenditzea. Hala ere, jarre-rak erabat kontrakoak dira. Batzuek urtegiari ezetza biribila ematen diete, eta Artozkin, aldiz, ia beharrezkotzat jotzen dute. «Gu ez gaude koordinakundearen aurka, inondik inora, eta herriko gazteek haien planteamen-duak defenditzen dituzte. Guk alde batetik jo dugu, geurea defendituko dugu, eta koordinakundeak berea. Besterik gabe. Hala ere, urtegia beharrezkoa da ura leku guztietan behar delako».



Itoitzen bat datoz koordinakundearen planteamenduekin.

A.B.

Artozkin herri berria nahiago

BOSTEHUN MILIOI PEZETA

Beren eskaera lortzeko lehendabiziko EPTISA enpresara jo zuten, bera arduratzen baita desjabetze lanez eta ordainketaz. Bertan beste herri berria ez baina Nagoren lur sailak emango zizkietela azaldu zieten, eta orduan izan zen koordinakundearkin nolabaiteko haustura. «Galdetu genien ea lagunduko ziguten gure eskaera bideratzen, eta ezetz esan ziguten, beraz herriko batzordea osatu genuen». Ondoren Lopez Borderias Nafarroako Gobernuko Herrian kontseilariarekin elkarrizketatu ziren, eta orduan Nafarroako Gobernuak eskaerari buruz ikerketa egin

behar zuela azaldu zien. «Esan zigunez, herri berria eraikitzeke aukera aztertu nahi zuten, eta hortik zenbait hilabetetara etorri ziren herrira arkitektoak. Tokia erakutsi genien eta berehala erantzuna izango genuela esan ziguten». Erantzuna: ezetza. «Herri berria egiteak 500 milioi inguru pezeta balio zuela eta hori oso garestia zela esan eta horrela utzi gintuzten». Geroztik kontseilariarekin elkarrizketatzea eskatu dute herrian, baina ez dute lortu.

«Ez digute inolako soluziobiderik eskaini. Enpresak gure lurrei prezioa jartzea nahi du, baina guk ez dugu dirurik nahi, gure herria baizik». Herri berria urte-


gitik kanpo geldituko liratekeen lurretan egingo litzateke.

Bilera berean herria ez baina eliza, duen balio artistikoa dela eta, harriz harri beste toki batera eramateko asmoa dutela azaldu zuten kontseilariak, baina herrian ez dute hori onartzen.

«Mehatxua egin diegu: herria eraikitzen ez badiquite, eliza ere hemen geldituko da. Guk konpondu eta berritu egin dugu urte guzti hauean, behar zenean, eta guri esker dago orain zutik. Ordurarte ez Principe de Vianak ez Artzapezpikutzak ez dute ezer egin, eta orain salbatu nahi dute? Nahi badute, herriarekin batera salba dezatela».



Gazteendako Zokoa



Nafarroako Banakako Xake Txapelketako 8. jardunaldiko partida, 1993ko martxoaren 13an. Inigo Jimenez (1.890 ELOkoa) Unai Garbisen (2.275 ELOkoa) aurka.

1.d4,f5; 2.g3,Zf6; 3.Ag2,g6; 4.c4, Ag7; 5.Zf3,d6; 6.b3,c5; 7.Ab2,Ze4; 8.e3. Hiru aldiz endroka egiteko aukera izan du. Hemendik aurrera iritsiko zaizkio arazoak. 8...Da5 xa; 9.bZ-d2, Ze6; 10.a3,0-0; 11.Dc2,d4; 12. b4. Zuzenagoa, 'd4'. Damak oso ongi defendatuko du erdiko peoi hori. 12...Db6; 13.Ze4, e4; 14.Zd4,Zd4; 15.Ad4,Ad4; 16.d4, a5; 17.0-0,b4; 18.b4,Ga1; 19. Ga1,Dd4; 20.Gd1,Gf2; 21.Gd4, Gc2; 22.Ae4,Gc1 xa; 23.Ef2,b6; 24.Ee3, Ae6; 25.Ad5,Ad5; 26.d5. Teknika izugarria erakutsiko du Garbisuk bukaera hau bereganatzeko (ikus koadroa). 26...Ge1 xa; 27.Ed2,Ge5; 28.Ec3, b5; 29.g4, Ef7; 30.Gf4 xa, Ee8; 31.Ed4, Ge2; 32.h4,Gh2; 33.g5, Gh3; 34.Ge4, Gb3. Txuriek, jakina, etsi egin zuten.

Bertsoak

Konstituzioari botatako bertsoak. Leitzako Lanbide Eskolakoak.

Abenduak sei Konstituzio nazkantean urteurrena espainolistek ospatzen dute izugarrizko berbena jarri zioten garai haietan Konstituzio izena botatu zuten demokrazia izan beharko zuena lege berri bat jarri beharra oraingoari etena

Euskal Herriak noizerako berea demokrazia ta gu bezala Katalunia Baltikak ta Kroazia gai hau dagoela polemikaz bene benetan hazia espainol izateak neretzat ez du batere grazia noizerako izango dugu guda hau irabazia

Txomin Belauntzaran

Mahastigintza Nafarroan

XABIER IRIARTE

Mahatsa lantzen duten nekazari nafarrek arazo handi eta larriak dituzte gaur egun aurrera ateratzeko. Mahatsaren hazkunde denbora nahiko luzea da, eta hiru mahats mota daude: gorria, gamatxa deritzana; txuria, moskatela deritzana; eta beltza, normalki ardoa egiteko erabiltzen den mahatsa. Mahatsa ahal den leku hoberenean landatzen da eta hiru urteetan fruitua ematen hasten da. Hiru urte hauetan hurbilek jarraitu behar da eta lana gogorrak eta delikatuak egin behar dira bertan. Bi antolaketa mota daude: enparratua, landarea zuzen ateratzeko burnizko hariak zuzen jartzen direnean, eta enparratu gabea, nahi bezala hazitzen uzten denean.

Landarea sendoa izan dadin, bitaminak botatzen zaizkio, superfosfato, potasa, eta nitrogeno apur bat. Hau granulatu moduan

lurperatzen da landarearen ondoan, eta likido moduan dauden nahasketak ere botatzen zaizkio —kuprea, azufrea, mesatil eta falfet— mildusa, oidiuma, akariosa eta brotitisa sendatzeko.

Loreak ateratzeko aroan, landarearen egun sensibleenak izan ohi dira. Euria egiten baldin badi, landarearen polenaren antzekoa lurrera erortzen da. Lurra ere landu behar da eta noizbehinka jorratu egiten da. Mahatsa loditzen hasten da, eta, neurri berean, azukrea hartzen du. Udako azken beroekin, mamitzen du eta urriaren lehenengo egunetan, mahastiak biltzen hasten gara nekazariok.

Sotoan sartzen dugu eta mostoa fermentatu eta gero ardo bikain bat lortzen da. Bide erdian gaude oraindik, zeren produktua izanik saldu beharra baitago. Nafarroan bi ardo mota dira nagusi: gorria eta beltza. Gorria errezago saltzen da eta gainera munduko

hoberenetariko bat da. Beltza, berriz, ez da erraz saltzen eta sotoaren presidentea bera salneurria poliki-poliki jeisten doa norbaitek erosi arte.

Kontsumo eskasaren arazoak konpontzeko NPZNk, Nekazal Produktuen Zerbitzu Nazionalak, soberakinei su emanez alkohola ateratzea proposatzen du. Horrela salmenta eta erosketaren arteko proportzioak berdintzen dira, eta ardoaren salneurria igoko da, hau da, nekazariak diru gehiago irabaziko dute.

Europako Elkartek mahastiak edo zelaia kentzen dituen nekazaria saritzen du, produktu eta kontsumoaren arteko berdinketa lortzeko. Baina larria da oraindik nekazarien egoera, beren alde egindako hobekuntza guztiekin, landatu eta bost urte eta gero hasten baitira dirua irabazten, eta bitartekariak direlako, lan gutxi eginez, diru asko irabazten dutenak.



KAZKARROAN

Jenero Xumekoak

Saten zuriko gauak

Ezkondutako gizon batekin ibiltzen bazara, ez eman errimelik begiei, beti negarka bukatzen bait da pasadizua.

JEREMIAS ERRO

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Gaueko argi
2. Lapitz
3. Herri nafarra
4. Hurbil
5. Zitala



1. Ganibeta
2. Hortaz
3. Herri nafarra
4. Gogoko
5. Gazi bihurtu



1. Udai nafarra
2. Ibai harri
3. Bagaude
4. Barne, barren
5. Alea, bihia



El Perdon-Erreniega (II)

Nafarroako Gobernuak *Sierra de Erreniega* onartu eta ofizializatu zuen.

Ongi egina, gainera, historia eta zizurtar eta galartarren usadioa begiratu zituelako. Izen honekin batera segituan emanen ditudan izen hauek ere ofizializatu ziren: Camino del Perdon, Perdonalde...

Tamalez afera ez da erabaki horrekin konpontzen eta zalan-tza ugari sortzen zaizkit esku artean ditudan datuak aztertzerakoan. 1/ *Erreniega*, benetazko euskal forma da? 2/ *Sierra del Perdon* izena hain erraz garbitu daiteke plano guztietatik?


Lehendabiziko galderari, ezetz erantzun behar zaio. Har dezagun, konparazio batera, *Lumbier* izena. Euskalduna al da? Jatorriz bai, dudarik ez. Baina erdaldunek moldatutako forma baita, ez da jadanik euskal izena. *Irunberri*, esate baterako, izen zaharra zen, euskaldunen aho-mihietan gaurdaino iraun duena. Baina erdaldunek beren fonetikara egokitu zuten *r l* bilakatuz eta *e ie* diptongatuz. Ohar gaitzeen orduan *Renega* dela formarik zaharrena eta *Reniega* haren ahoskapen erro-mantzatua. Gainera, erdal forma hau gure artean zabaldueña dela, baita bertakoen artean ere. *Erreniega* forma, beraz, mesfidantzaz ikusi beharko genuke. Zilegi zaigu izen hibrido hau on-tzat ematea, onargaria da euskaldunen e proteikoa eta erdaldunen diptongazioa? *Erreniega* forma errekuaratu beharko genuke euskararako ala etsi beharko genuke *Reniegarekin*?

Bigarren galderari ere, ezetz erantzun behar zaio. Kontutan hartu behar da Nafarroan burutzen ari den bilketa toponimikoan eskala kartografiko handia (1:5000) erabiltzen dela eta, hau dela eta, erabakiak eskala horren arabera hartu dira. Esan nahi da momentu honetan erabakiak bertakoengan pentsatuz hartzen direla baina beste eskala bat erabiltzekotan, agian, beste aterabide batzuk onar litezkeela. Zehatzago esateko, demagun Nafarroako erreliebezko planoan, pixkanaka pixkanaka, izen ofizial guztiak sartu behar direla. Errealista litzateke *Sierra de Erreniega* o *de Reniega* sartzeara nafar guziek bakarrik ezagutzen duten *Sierra del Perdon* baztertuaz? Agian, bai.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

Asteazkenean zabaldu zen Tuterako Castel Ruiz Kultur Etxean La Caixa Fundazioak eta Unescok bultzatutako Ondasun 2001 izeneko egitasmoaren barruko hirugarren erakusketa. 'Etiopia kristaua' izeneko erakus-



keta, Lalibelia herrian dauden elizak eta bertako erritoak azaltzen saiatu da, argazkien bidez. Egitasmoaren aurkezpenean berean esaten denez, «kultur ondasuna ezagututa gordeko baitugu».

Ondasunak

argazkitan



PATXI ULAIAR / TUTERA

«Gizarte bakoitza sortu duenaren ondorio bera da; sortu eta desegin duenaren ondorioa. (...) Gaur egun ez dago aurkikuntza egiterik lurretan eta ez dago zeharkatu behar den itsasorik, baina badaude oraindik ezezagunak diren herri, inguru, ohitura, errito, itxaropen eta sinesmen franko. Aztertzeke daude, hitz bitan, gizadiaren milaka paisaia kultural eta espiritual (...)». 'Etiopia kristaua-ri' buruzko erakusketaren aitzin-solasean azaltzen da garbi egitasmo honen helburua: gizadi osoaren ondasuna den aniztasun kulturala ahalbait gehien zabaltzea mundu osoan zehar. Eta mundua zabala eta handia denez, zer hoberik ondasun horiek ekartzea baino, beren bila joan ezin bada? La Caixa Fundazioak eta Unescok bultzatutako erakusketa honen bidez —Angkor, Behialako Guatemala, eta San Petesburgi buruzkoekin batera—, jendearen sentsibiltatea berpiztea dute helburu, ondasun hauen garrantziaz jabeatzeko eta kultura ezberdinen arteko ezagutza bultzatzeko.

1520an, Portugaleko enbaxada batek, sei

urte eman zituen Etiopian, eta horren barruan zihoan Francisco Alvarez apaiza txundituta gelditu zen bertan aurkitu zituen ondasun eta eraikinekin. Buguenan zegoen, Lalibelan. 2.700 metroko altueran, eguzkia, olibondoak, arkaziak, eukaliptoak, ipuruak, piper landareak, freskotasuna eta lasaitasuna dira nagusi inguruan. Baina bisitariaren begien aurrean ez dira apaizak aipatzen zituen eraikinak azaltzen. Ikusteko herriaren barru-barruraino sartu behar da, zuloetara hurbildu, luraren sustraian baitaude zizeldurik.

Hamaika eliza dira denetara, eta ez zebilen oker portugaldarra munduan parerik ez zeukatela esaten zuenean. XII. eta XIII. mendeak bitartean eraiki zituzten, Lalibela erregearen agindupean. Kondairak dioenez, Palestinako ingurua gogoratu nahi zuen hemen erregeak, Saladino enperadore turkiarrak Hiri Saindua bere egin zuen garai latz haieran.

Bi zatitan daude banatuta, oso


espazio txikian. Medhani-Alem izenekoak da handiena, baina ezin da arkitektura hitz egin, ez baitira eraikinak, propio esanda. Harkaitzetik bereizitako zati batez

La Caixa Fundazioak eta Unescok bultzatutako erakusketan ageri diren argazki guztiak kalitate handikoak dira, eta Arnaud de Wildenberg frantziarrak eginak dira.



eginak dira, eta zizeldurik daude bertan. Ez daukate denek ez forma ez itxura bera. Alabaina, ezberdintasuna da tokiaren ezagarririk bat, eta denek dute inguruko zolaren arrosa kolorea.

Harria zizeltzeko artearen jatorria lehenbiziko milurtekoaren hasierara galtzen da. Oraindik ere erromerietarako puntu garrantzitsua da Lalibela, eta jatorri



buruan.

Egun oraindik bizirik diraite inguru honetan garai hartako errito eta ohitura frankok, bertako errito afrikarrekin nahasita. Betidanik Egiptoko elizaren menpe, 1959an eten egin zituen lotura horiek eliza etiopiarak, eta ordutik aurrera patriarka bertakoa da. Egun 15 milioi inguru dira etiopiar kristauak, ortodoxoak ia denak, katolikoak eta protestanteak nahiko urriak baitira. Kultuan, hala ere, jatorri judutarreko praktika batzuk antzeman daitezke, hala nola tabot-ari dioten errespetua.

Halaber, oso lotuta dago eliza coptarekin, eta hori gurutzeari dioten begirunean antzematen da. Gurutzeak, *masqal* etiopieraz, eliza eta fededunei ematen die izena, eta beti lepotik zintzilik edo kopetan zizelduta eraman ohi da. Irailaren 27an festa nazionala da bere ohorez. Apaizek ez dituzte uzten elizatik kanpo eta etxe saindu orotan anitz eta bikainak dira.

XII. eta XIII. mendeak bitartean eraiki zituen elizak Lalibela erregeak. Kondairak dioenez, Palestinako ingurua gogoratu nahi zuen bertan.

Xabier Silveira

bertsolaria

Nafarroako bertsolari gazteen adibidea den Silveira lesakarrak harridura sortu zuen iazko txapelketan, erakutsi zuen tre-

bezia eta plantagatik. Itxura heterodoxoaren atzetik bertso zaharren irakurle eta bertsolaritza onaren zalea azaltzen da, bertsolari petoa, alegia.

«La Pollarekin identifikatzen naiz»

MIKEL MENDIZABAL / LESAKA

Ez da ukatzen ahal Xabier Silveira bertsolari bitxia denik. Bere gorputz sendoa eta duen lasaitasunak bertsolari mota bat gogorarazten digute. Jantzera eta itxurak, modan jartzen ari diren bertsolari moderno horietako bat, eta deiturak, berriz, bere jatorri portugaldarra. Silveiratarak, hain zuzen, Oporto ingurutik baitatoz. Aita Donostiatik igaro eta bertan lanean aritzeko egin zioten eskaera onartu ondoren hemen gelditu zen, Euskal Herrian. Eta agian Xabierren bertsolari sena ere ardo famatuaren sorlekutik dator, bere aitona kantadorea baitzen eta bertsoan aritzen zen herriko jendeak oinen bidez mahatsak txikitzen zituen bitartean: «Antz handia dute hemengo bertsolariekin. Lau lerroko koplak antzekoak abesten dituzte, dena inprobisatuz. Gaiak ez dira zehazten eta musika mota desberdinak daude», azaldu digu Silveirak.

Izan ere, aitona zen hoberenetakoa lan haietan, nahiz eta bertako 'bertsolaritza' hemengoarekin ezin den konparatu. «Festetan abesten da batez ere, eta orduan bi kantadoreen arteko lehia egiten dute, nork bere argudioekin. Bati bukatzen zaizkionean beste bat sartzen da, nork irauten duen gehiago». Mota guztietako gaiak ukituz, bai festetan bai hiletan elizkizunetan abesten dituzte, baina garapenik ez duela izan azaldu du Xabierrek. «Ez dira hemen bezalako txapelketak edo saioak egiten eta kalitatearen aldetik ere anitz hobekideak dituzte».

Xabierri, ordea, ikastolatik etorri zitzaion, beste askori bezalaxe, bertsoarako zaletasuna. Lontxo Aburuzarekin izan zuen bertsolaritzaerikiko lehen harremana, baina klasetik kanpoko saioetan piztu zitzaion benetako

grina: «Txikitzen asinatura gisa genuen eta agian horregatik ez zitzaidan gustatzen, beste asinatura guztiak bezalaxe. Baina geroago, tailer moduan jarri zuten, klase orduetatik kanpo eta orduan hasi zitzaidan interesatzen gaia». Bertsolariak berezkoa izan behar duela iruditzen zaio Xabierri: «Ikasi, ikasi, edonork ikasten ahal du bertsoan, baina maila batetik aurrera, berezkoa behar du izan. Gainera, bertsoan aritzeko ez da lotsarik behar».

Erraztasunaz gain, ordea, beste ezaugarri batzuk aipatu dizkigu Silveirak: «Nere ustez azken aldi honetan beste bertsolari mota bat sortzen ari da, orain arte ikusi ez dena. Eta hau bertsolari kultura da, ongi informatua dagoena, ez bakarrik bertso munduan, baita beste literatura motetan ere, politikan, bizitza orokorrean. Guzti horiek ikaragarri aberasten du bertsolaria, betiko gai topikoetatik ateratzen ahal delako. Horren adibide garbia Andoni Egaña da. Neretzat bertsolari izugarria da Egaña, errekurso ugari du eta hori bere bertsoan isladatzen da». Gazteen artean Jon Maia aipatu digu, hain zuzen ere, Egañaren planta hori ikusten diolako.

BERTSOLARITZA EZAGUTU BEHAR

Nafarroan azken aldi honetan izan den bertso aurrerakadari buruz ere galdetu diogu eta uste genuen baino erantzun zorrotzagoa azaldu du. «Duela bi-edo hiru urte arte, txapelketako maila oso eskasa zen. Egun finalera sartzen den edonor izaten ahal da txapel-dun. Hor lehen bazen jendea zortziko txikia eta zortziko handia bereizten ez zituena. Orain kostatzen zaigu hori ulertzea, baina horrela izan da. Gorakada honetan, telebistak badu zerikusia. Alde batez, bertsolaritza modan jarri du, zaletasun handia sortuz.



Urko Atxutegirekin, 1992ko Argia Egunean.

TALA

Baina badu bere alde txarra ere, jendeak ezagutzen duen bertsolaritza hori ez delako benetako bertsolaritza. Telebistan nor ateratzen dute? Ba Egaña, Lizaso eta Peña; zergatik? Ba hoberenak direlako eta, noski, jende askok

uste du bertsolari guztiek horien maila dutela eta gero bertso saio normal batera joaten bada egundoko dezeptzioa jasotzen du. Nik telebistara jende normalagoa eramango nuke, nahiz eta horren onak ez izan».

Jendeak denetarik ikusi eta aditu behar du, gero bertsolaritza ona apreziazteko, baina bere neurrian».

Orduan kontatzen digu Aranzan egindako berso saioan jendeak erakutsi zuen interes falta. «Bertso saio dotore eta polita egin genuen Bortzirietako Bertso Eskolako gazteek, baina jendea ez zen agertu, Egaña, Peña eta Lizasok egiten dituzten bertso saioekin konparatzen zuelako. Eta jendeak denetarik ikusi behar du, gero bertsolaritza ona apreziazteko, baina bere neurrian. Euskal Herri osoan badira bertsolari arrunt onak, baina denak ez dira puntakoen mailakoak, jakina». Telebistarekin gertatzen dena azaltzeko, futbolarekin egiten du konparazioa Silveirak. «Telebistan ez dute bakarrik ematen Real Madrid eta Barcelonaren arteko partidukoak, eta horrela jendeak konparatzen ahal du futbola eta benetako maila. Hori falta zaigu bertsolaritza».

Bertso zaharren irakurle, Lizaso izan du betidanik gustuko, eta baita Txirrita ere, baina egun Egañaren estiloa goraipatzen du. «Orain irakurtzen ditut bertso zaharrak eta ez zaizkit hain onak iruditzen. Egaña, esate baterako, Txirritak zuen guztia dauka. Hura akaso jarioan nagusitzen da, baina honek errekurso gehiago ditu». «Pertsonalki, bertsolari on hauek Su Ta Gar taldearekin konparatuko nituzke, hau da, letra ona, musika landua, teknika... nik ordea, neure burua La Polla Records-ekin konparatzen ahal dut, ba hori, ez direla horren onak, baina sentitzen dutena hartu eta botatzen dutenak».

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

~BAI ESPERANTOARI~

